


# FEDERIKO KRUTWIG “HOMERO 1989” SARIAREN IRABAZLE GREZIAN

*Bilbo, 1989-XI-2*

*Alfonso Irigoien*

Federiko Krutwig Grezian Homero 1989 sariaz hornitu dute, zein Homero elkarteak urteoro emaiten baitio kultura grekoaren alde eginiko aportazio eta merituakatik nabarmendu den pertsona bati.



Grezia-ko Kultura Ministerioak gomitaturik Athenetan izan dira hamabi egunez Federiko Krutwig eta Juan Jose Pujana, bata eta bestea Bilboko Jakintza Baitha (ΚΑΛΙΑ ΤΗΣ ΓΝΩΣΕΩΣ)-ko buruzagi eta kide, lehenengoa, gainera, Η ΕΠΙΣΤΗΜΟΝΙΚΗ ΕΤΑΙΡΕΙΑ ΠΑΡΑΔΟΣΙΑΚΩΝ ΣΠΟΥΔΩΝ - Kultura eta Tradizio Grekoen Ikasketarako Elkarte Epistemonikokoa, eta bigarrena Euskal Parlamentuko Presidente ohia, eta orain Senatore, eta haiekin batera Antonio Artiñano. Kultura Ministro grekoak hartu zituen, zeini Krutwig jaunak Jakintza Baitha-ren xedeak eta helburuak adierazi baitzizkion. Denbora berean zenbait deputatu eta ekonomiako pertsona grekori bisita egin ahal izan zitzaion, eta etorkizuneko zenbait proiektuz berba egin zen, bai kulturari eta bai politikari dagozkienak. Athenetan sortu berri den Heleno-Euskal Elkarteak errebista elebidun bat, grekoz eta euskaraz, argitaratzeko asmoa du, zeinetan herri bietako kulturazko gaiak erabiliko baitira.